

**Euskera-zale doai aundiko biursakin eta adiskide
ON KLAUDIO OTAEGI JAUNARI.**

Lagun prestua, gizon argiya,
jator naitasun betian,
kantatu dezu pozturik denak
izkuntza gure maitian.
Isildu zera, samiñ gogorra
utzirik Euskal-errian,
jilla zu! ez, ez; biziko zera
euskaldun biotz artian.

MARZELINO SOROA.

¡OTAEGI!

Gizon biotz-ederra, euskaldun prestua, biursari sariz estalia, lagun
leial ta adiskide maitea! Zure eskutizetan esaten zenidan beti:—laztan
bat Justachori;—au esaten dizut nik gaur!

Atzo ura, gaur zu, bigar ni ¡nola goazen guztiok! ¡nola goazen!

Pensamentu au, otoitza, malkoa, jartzen ditut orain zure obian!

¿Ta gero? ¡A!... ez da aztutzen maitea danik:

¡Ez adiorik!

ANTONIO ARZÁC.